



## PRENTSAURREKOA

### HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDE! PRIBATIZAZIOARI EZ!

Euskal eskola publikoaz harro gaudela esateko eta hezkuntza publikoaren alde mobilizatzeko ordua da.

Dugun hezkuntza sistema dual, klasista eta arrazistak eskola publikoaren kaltean jokatzen du, segregazioa eta bi mailako ikasleak sortuz, eta berau birplanteatzeko ordua ailegatu da. Datuek argi erakusten dute egoeraren larritasuna: Europako eta Espainiar Estatuko erkidegorik segregatzailenetariko bat gara.

Eskola publikoa da hezkuntzan dugun zerbitzu publikoa, doakoa eta unibertsala, denona eta denontzat, jatorrizko ezberdintasunak berdintzen dituen, inklusiboa den bakarra, euskal gizartearen kohesioari ekarpen handiena egiten diona eta baldintzarik zailenetan ere ikasle gehien euskaldundu duen eta gaur egun euskalduntzen dituen sarea.

Hezkuntzak ezin du merkatuaren menpe egon, hezkuntzarako eskubidea ezin da egon familien ahalmen ekonomikoaren baitan. Diru publikoz finantzatutako bi eskaintza izateak, kontzertazio unibertsalaren aterkipean, publikoa eta pribatua, lehia dakar ezinbestean, bi sareen edo sare bereko ikastetxeen artean. Bi sareak ez dira berdinak eta ezin dira parekatu bere tratamendu politikoan eta babes mailan, publikoa doakoa eta denontzat den bitartean, sare pribatuko ikastetxeek kuota ekonomikoak, erlijioa eta gardenak ez diren beste irizpideak erabiliz maiz egoera zaugarrian dauden familiei sarbidea ukatzen diete. Honek ondorio zuzena du hezkuntza-sisteman eta baita jendarte osoan ere, eskola-segregazioa. Edozein kuota ekonomikok eta bi sare egoteak, berez, segregazioa sortzen du.

Dugun hezkuntza sistema dualak, beraz, gizartean dauden desberdintasunak konpondu beharrean, areagotu egiten ditu, bi abiaturako hezkuntza sistema eratuz eta gizarte haustura sortuz. Egoera larri honek herriaren kohesioaren etorkizuna jartzen du kolokan.

Honen kontra borrokatu eta neurriak har daitezzen mobilizatuko gara. Hona hemen gure aldarrikapenak:

1. **Eskola publikoak administrazioaren lehentasun osoa izan behar du** baliabide ekonomiko, material eta pertsonalen aldetik, denona eta denontzakoa den eskola delako.
2. **Eskola bakarra aldarrikatzen dugu.** Ondorioz, eskaintza publiko integrala eta doakoa bermatu behar da udalerrri eta auzo guztietan 0tik 18urtetara.
3. **Hezkuntza pribatu-itunduari mugak jartzeko garaia** da: ez da lerro

pribaturik irekiko, eskaintza publiko nahikoa dagoen bitartean.

4. Beraz:

- **Pribatizazioarekin amaitu.** Sortzen diren ekimen pribatu guztiak, derrigorrezkoak ez diren etapak barne (haur hezkuntza eta batxilergoa) baimendu, itundu eta diru publikoarekin sostengatzen dituen politikarekin bukatu behar da.
  - Orain, jaiotze-tasa behera doan une honetan, eta ikastetxe pribatuekiko kontzertuak datozen 6 urtetarako berrizteko daudenean, Administrazioari **diru publikoaren erabilera bidezkoagoa exijitu nahi diogu.**
5. Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak **ikastetxeen publifikazioa ahalbideratuko lukeen araudi adostua sortu behar du.**
6. **Euskarazko murgiltze eredia orokortu.** Diru publikoarekin ez finantzatu euskalduntzen ez duten eta, beraz, inklusioaren eta integrazioaren kontra jokatzeko duten hizkuntza-ereduak dituzten ikastetxe pribatuak.

Interpelazioa egiten diogu Eusko Jaurlaritzari egungo egoera diskriminatzaile honetara iristeko daramatzan hezkuntza politikengatik, baina baita sare pribatuko ikastetxeei ere, egoera hau baliatuz bere pribilegioak mantendu, inklusioari muzin egin eta segregazioa areagotzen laguntzen dutelako.

Orain, EAEn Hezkuntza Akordioaz ari direla, kezka handiz hartu ditugu Jokin Bildarratz sailburuak ikasturte hasieran egindako adierazpenak. Gardentasuna behar dugu prozesuan, sare publikoko ordezkarien parte hartzea bermatuko duena, hezkuntza-sareez, finantzazioaz, murgiltze ereduaz eta eskola-segregazioaz hausnartuko duen prozesua, hain zuzen.

Ez dugu nahi egungo sistema duala legitimatuko duen akordio/legerik, eskola publiko sistema erdigunea bihurtuko duena baino, sistema inklusibo, euskaldun, ekitatibo eta ez-segregatzaile baterantz aurrera egiteko ezinbestekoa dena. Etorkizuneko jendarte eredia dago jokoan.

Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunetik, denona eta denontzat den eskola publikoaren alde egin eta eskola-segregazioaren kontra konpromiso argia azaldu dezala eskatu nahi diogu.

**AZAROAREN 6an BILBON ELKARTU ETA OIHU EGINGO DUGU:  
HEZKUNTZAN, PUBLIKOAREN ALDE! PRIBATIZAZIOARI EZ! GORA  
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA! EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO!**

Gasteizko, Oiongo, Bilboko, Santurtziko, Oarsoaldeako, Astigarragako, Zabaleko bizirik Amurrioko, Donostialdeako, Lasarte-Oriako plataformak, Ordiziako Euskal Eskola Publikoko Komunitateak eta Goieskola, EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte), HEIZE (Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa), IKASLE SINDIKATUA, IKASLE EKINTZA, GAZTE KOMUNISTAK,

LAB, STEILAS, CCOO, ESK eta CNT